

# MÚLTIPLES MUNDOS

17.09.2015 — 14.11.2015

Ignasi Aballí, Armando Andrade Tudela, Juan Araujo, Lothar Baumgarten,  
Carlos Bunga, Cabello/Celler, Fernanda Fragateiro, Hreinn Fridfinnsson,  
Carlos Garaicoa, David Goldblatt, Cristina Iglesias, Vik Muniz, Ernesto Neto,  
Francisco Ruiz de Infante y Francesc Torres

CarrerasMugicak *Múltiples mundos* erakusketa aurkezten du, Obra Social “la Caixa” bultzatutako Arte y Mecenazgo Fundazioak CarrerasMugicari eman dion sariari esker egin den proiektua. Elba Benítez galeria-jabea da erakusketako komisarioa. Erakusketaren bidez, galerien arteko trukea eta elkarlana bultzatu nahi dira, arte-eszena dinamizatzeko tresna gisa.


*Múltiples mundos* proiektuan artista hauek daude sartuta: Ignasi Aballí, Armando Andrade Tudela, Juan Araujo, Lothar Baumgarten, Carlos Bunga, Cabello/Carceller, Fernanda Fragateiro, Hreinn Fridfinnsson, Carlos Garaicoa, David Goldblatt, Cristina Iglesias, Vik Muniz, Ernesto Neto, Francisco Ruiz de Infante eta Francesc Torres.

Erakusketaren izenburuak iradokitzen duenez, *Múltiples mundos* ugaritasunaren ikuspegitik hurbiltzen da arte garaikidera: formatuen eta diziplinen ugaritasuna; hizkuntza artistikoen eta estrategia kontzeptualen ugaritasuna; ugaritasuna eskualde geografikoetan eta adinean. Erakusketak ez du obrak barruan sartzeko moduko narratibarik edo gaikako egitura orokorrik. Aitzitik, *Múltiples mundos* erakusketak baldintzak sortu nahi ditu narrazio hori berez azal dadin, obrak erakustoki berean batera izatean sorrarazitako indar zentrifugo moduko zerbaiten bidez (Italo Calvinoren formulazioari jarraiki). Era horretan, *Múltiples mundos* erakusketak zintzo islatzen du nazioarteko egungo artea, arlo horretan hizkuntza artistiko ugari aritzen baitira batera askatasunez. Aldi berean, Elba Benítezek gure egungo arteari buruz duen ikuspegi berezia eskaintzen digu.

Elba Benítez Galeriak duen erakusketa-programarekin bat etorrita, *Múltiples mundos* erakusketako artistak askatasunez mugitzen dira era askotako diziplinen artean, besteak beste, fotografian, bideoan, eskulturan, obra grafikoan, horma-pinturan eta instalazioan. Artisten jatorria era askotakoa da, adibidez, Brasil, Kuba, Venezuela, Portugal, Hegoafrika, Islandia, Peru, Alemania eta España; eta adin aldetik ere hogeita hamar eta lauogei urte artean daude.

Gainera, beren praktiken aniztasunean eta konplexutasunean, *Múltiples mundos* erakusketako artistek era askotako metodologiak erabiltzen dituzte, hala aipamen esplizitua nola iradokimen lausoa, bai ikerketa historikoa bai kritika sozial gogorra; nola analisi teorikoa hala oinarri kontzeptualeko poesia bisuala. Hala ere, obra guztiek zorroztasun formal handia dute betearazpenaren maila guztietan, eta parte-hartzaileek gure garaiko nazioarteko diskurtso artistikoaren berri izan dute.

Arte y Mecenazgo Fundazioak emandako sariaren bidez finantzatutako proiektua osatzeko, datorren denboraldian beste erakusketa bat egongo da Elba Benítezek Madrilén duen egoitzan. CarrerasMugica izango da komisarioa, eta bere galeriako artistek hartuko dute parte.



Instalazioaren ikuspegi orokorra

David Goldblatt.  
Zuri-beltzeko argazkia zilarrezko gelatinan zuntzeko paper gainean, 30x40 cm




Vik Muniz.  
*Ecstasy of Saint Teresa, after Bernini, 2015.*  
Pictures of Chocolate, 145,36x101,6 cm.



Instalazioaren ikuspegi orokorra



Ignasi Aballí.  
*Listado (Pisos, Casas, Arquitectura II)*, 2009.  
 Inprimatze digitala argazki-paper gainean, 150x105 cm.



Armando Andrade Tudela.  
Sin título (N.Y), 2014.  
Hondar-zurrustaz leundutako ispilu grisa, 276x175x2 cm.  
*Vuscohh Vohhlver 5*, 2014.  
Eskaiola, aldizkari-papera, 35x58x36 cm.



Instalazioaren xehetasuna

ELVAVIWA ARAI-KEPA IVANAPA  
IWORE-PARU KAIMA KARUMÁN



Lothar Baumgarten.  
*Chloroceryle Amazona (Martín Pescador Matraquero)*, 1985.  
Marrazkia eta tenpera horma gainean. Neurri aldakorrak.  
Äskulap, 1971.  
Inprimatze kromogenikoa, 64,8x82,6 cm.



Lothar Baumgarten.

*Swan*, 1970.

Inprimatze kromogenikoa, 64,8x82,6 cm.

*Urucu*, 1970.

Inprimatze kromogenikoa, 64,8x82,6 cm.




Instalazioaren ikuspegi orokorra  
Fernanda Fragateiro.  
*Not seeing #2*, 2008.  
Ispiluak eta DM, 960x360x30 cm.



Instalazioaren ikuspegi orokorra



Juan Araujo.  
*Nave 3*, 2015.  
Olíoa oihal gainean, 27x41 cm.  
CGAC, 2007.  
Olíoa oihal gainean, 27x41 cm.




Carlos Bunga.  
*Untitled, Model, 2004.*  
Piezen multzoa, kartoia, zinta itsasgarria eta pintura matea, 100x80x97 cm.



Hreinn Fridfinnsson.  
*For Ligth Shadow and Dust, 1993-2014.*  
Urrezko orriak, beira, 14 apal, 0,6x75x15 cm.



Instalazioaren ikuspegi orokorra



Carlos Garaicoa.  
*Perspectivas II*, 2015.  
Metrakilatoa, biniloa eta Hirugarren Reichek editatutako 14 zigiluen bilduma. Neurri aldakorrak.



Frances Torres.  
*Diagonal de arena borrada por la acción del viento, 1970.*  
Zuri-beltzeko argazkia zilar-bromuroan, 40x40 cm.




Cristina Iglesias.  
*Beirut Souk Shadow II*, 2011.  
Serigrafia altzairu herdoilgaitzaren gainean (poliptikoa), 250x400 cm.



Cabello/Carceller.  
*Suite Rivolta. Una propuesta estética para la acción, 2011.*  
HD bideoa, kolorea, soinua.



Instalazioaren xehetasuna



Francisco Ruiz Infante.

*Las leyes del tránsito (reloj)*, 2014.

Instalazioa. Irudi-kanal 1 (6'30'', z/b, soinurik gabe, loopa), 2 harea-erloju, zura.